


Biosfera Erreserba baten **zonifikazioa**




3 eremu

- **Gune eremua**
legez babestutako eremuak.
Kontserbazioa
- **Moteltze eremua**
erabilera tradizionalak eta
kontserbazioarekin bateragarriak.
- **Trantsizio-eremua**
garapen ekonomikoa
eta berrikuntza.



Hurbildu zaitez!
<http://rerb.oapn.es>




Biosfera Erreserben
Espainiako Sarea



MAB programaren 50. Urteurrena



Biosfera Erreserbak BIOSFERA



Zer da Unescoren MaB Programa?



Aurten 50 urte bete dira UNESCOren Gizakia eta Biosfera Programa (MaB) sortu zenetik. 1971n ezarri zen, eta pertsonen eta ingurumenaren arteko harremana orekatzea du helburu. Horretarako, natura- eta gizarte-zientziak konbinatzen ditu, gizakien bizibideak hobetzeko eta, aldi berean, ekosistema naturalak babesteko. Horrela, kudeaketaren ikuspegi berritzaileak sustatzen dira, garapen ekonomiko sozial eta kultural egokia eta ingurumenaren aldetik jasangarria lortzeko.

Planeta osoko lurralde askok bat egin dute programa honekin ordutik, Biosfera Erreserben Munduko Sarea eratuz, 129 herrialdetan 714 toki hartzen dituen, mugaz gaindiko 21 leku barne.

Zer dira Biosferaren Erreserbak?



Biosfera Erreserbak UNESCOk aitortutako lurraldeak dira. Bertan, aniztasun biologiko eta kulturalaren kontserbazioa, pertsonen naturarekin duten harremanaren bidez, garapen ekonomiko eta sozialarekin orekatzen dira. Ekologiko-ki adierazgarriak diren edo balio handia duten zonetan ezartzen dira, lehorreko, kostaldeko eta itsasoko inguruneetan.

Haren sorrera lurraldeetatik bertatik sustatzen da. Horrek bermatzen du bertako biztanleak ados daudela eta proiektuan eta haren jarraipenean inplikaturiko direla. Biosfera Erreserbek proiektu pilotu gisa funtzionatzen dute eta munduari erakusten diote nola babestu daitekeen ingurune naturala, gizarteak parte hartuz, eta, gainera, onura ekonomikoak lortuz.

Estatu espainiarra munduko lehen herrialdea da Biosferaren Erreserba kopuruari dagokionez, 52 Biosfera Erreserba deklaraturik ditu. Hau da, estatua-aren lurraldearen %12. Bertan ia 2 milioi pertsona bizi dira.



Nork kudeatzen du biosferaren erreserba?

Biosfera Erreserba deklaratzeko eskatzen duen erakundeak kudeaketa-organo bat eratu behar du, haren jardueraren plan bat gauzatzeaz arduratuko dena. Organo horretan ordezkaturik egon behar dute plan hori gauzatzen parte hartzen duten administrazioek. Jakina, Biosfera Erreserbek aitortutako arloan eskumenak dituzten administrazioen laguntza eta parte-hartzea izan behar dute: ingurumena, landa-garapena, hezkuntza, etab. Halaber, nabarmendu behar da kudeaketa parte-hartzailearen garrantzia, tokiko biztanleek eta eragileek zeregin garrantzitsua duten lurralde horietan.

Premisa hori aintzat hartuta, Biosfera Erreserben Espainiako Sareak (RERB) gobernantza-eredu ugari ditu, hala nola autonomia-erki-degoak, aldundiak, uharteetako kabildoak, tokiko ekintza-taldeak, fundazioak eta GKE-ak.



Zer ondorio ditu biztanleentzat eta haien jarduerentzat?



Biosfera Erreserba sortzea borondatezko erabakia da. Herritarrek nazioarteko komunitatearekin duten konpromisoa da ardatz nagusia, lurraldearen balioekin eta epe luzerako kontserbazioarekin bateragarria den garapen-eredu batean inplikatzeko erabaki baitute.



Zer murrizketa ezartzen ditu biosfera erreserbak?

Erohar, Biosfera Erreserba deklaratzeko ez du lehendik egon diren baino lege-murrizketa gehiagorik suposatzen.

Nork kudeatzen du biosferaren erreserba?




Biosfera Erreserbako kide izateak gobernantza parte-hartzaile ereduak sustatzeko aukera ematen du. Halaber, aukera ere bada lurralde baten egitura hobetzeko, eskualde bat ikusarazteko, beste erreserba batzuekin sarean lan egiteko eta esperientziak eta informazioa trukatzeak.

Biosfera-erreserbak eta mab programa estatu espainolean.



Estatu espainolean MaB programaren garapena koordinatzea Parke Nazionalerako Erakunde Autonomoaren (OAPN) esku dago legez. Erakunde hori arduratzen da MaB Programaren eta Estatu Espainoleko MaB Batzordearen idazkaritzaz.

Biosfera Erreserben Espainiako Sarearen bultzatzaile nagusiak honako hauek dira: MaBko Estatu Espainoleko Batzordea (erakunde-euskarria), Erreserben Kudeatzaileen Kontseilua (ekintza-ekimenak), Kontseilu Zientifikoa (ebaluazioa eta orientabideak) eta OAPN (koordinazioa, laguntza teknikoa, laguntza logistikoa eta ekimenen betearazpena).



Biosfera-erreserben espainiako sarearen jarduerak



MaB Programaren Idazkaritzak Estatu Espainoleko Biosfera Erreserbetarako interesgarriak diren eta banaka landu ezin diren ekintzak garatzen ditu. Horien artean, identifikazio-elementu komunak garapena (logoak, markak, seinaleak), difusio-lanak, azterlanak (ebaluazioak, ondare geologikoa, immateriala, etab.), esperientzien trukeak, lankidetzak eta elkarre-ko ikas esperientziak.

Gai hauei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu gure ataria Interneten: <http://rerb.oapn.es/>

